

Joxe Luix Zabala gogoan

Iñigo Legorburu



Joxe Luix Zabala pertsona ezaguna izan da Orereta-Ereterian urteetan zehar. OARSO aldizkarian ere kolaboratu izan du hainbat aldiz. Lesakako Laminaciones enpresan egin zuen lan urte luzez baina euskara eta bertsolaritza izan zituen bere bizitzako ardatz Joxe Luixek. Hizketan aritzea eta bazkalosteko edo afalosteko mahai-bueltak gustuko zituen. Eta kanturik baldin bazen tartean, are eta hobeto.

Erreterriako udalean ere zinegotzi izan zen denbora tarte batean baina bereziki Xenpelar bertso-eskolaren sortzaileetako bat izan zelako izango da gogoratua Joxe Luix Zabala. Bertso-sorta batzuk ere idatzi zituen bere bizitzan zehar eta baserri-giroa oso gustuko zuen.

Bertso sorta hau nik idatzi eta kantatu nituen iazko abenduko bertso-saioan bere omenez, eta bere alaba eta emazteari lore sorta eman zitzaizen gero. Bertso haue-tan bere bizitza eredugarriaren hainbat zertzelada agertzen dira eta berak hainbeste miresten zuen Xabier Amurizaren "Mendian gora haritza" doinuan eginak daude. Ziur, dagoen lekuan dagoela, bertso horiek gogoz kantatu dituela.

Azkenik, hona hemen bere esaldirik gustukoena, hitzetik hortzera erabiltzen zuena: "Guk ez dugu mundu hau aldatuko, baina aldatzen lagundu bai".

Umiltasuna eta konpromisoa adierazten duten hitzak.

Xenpelar Bertso Eskola



DOINUA: Mendian gora haritza

-1-

Kaixo Joxe Luix Zabala:
Kantuz hastera noala,
errespetuz ta gogoz egin nahi
dizut diosala.
Nire ahalegin apala
ez dadin gerta hutsala
ea argitzen asmatzen dudan
zerorren itzala. (BIS)

-2-

Hainbat urteetan barna
auzokidea izan
nirekin behintzat guztiz goxoa
zen han harremana.
Probesturik iragana
jarri zenuen afana
gure auzoan erakusteko
zer zen auzolana. (BIS)

-3-

Ez zenuenez begiko
munduarekin kritiko
izan zara zu, zurean beti
murgilduta, kitto!
Agintari, politiko
emanez haiei ostiko
zure ideiei urtetan eutsi
diezu hor tinko. (BIS)

-4-

Behar zen tarte hartu,
lagun denak mahaian batu
Euskal Herriko gaietaz bertan
nahi aina solastu.
Bi trago edo lau kantu,
hura gustuko pekatu
bazkalosteko giro alaien
zale amorratu. (BIS)

-5-

Greben garai gogorretan
ausarta zinen benetan
sindikatu langile fina
izanik urtetan.
Orain, oroitzapenetan,
bihotz guztiak penetan
guk, langileok, adiskide bat
galdu dugu bertan. (BIS)

-6-

Xenpelar bertso-eskola
bizitzaren parabola
hazi ostean utzia duzu
indartsu dagola.
Zure aitatasun rola
ez da ahazterik inola
zu ez zaudela jarraitzen zaila
da, arranopola! (BIS)

-7-

Jakinik doinu ugari
bertsoaren zerbitzari
izan zinela gure herrian
gelditu da argi.
Bertsozale, bertsolari
kalez kale ibiltari
bertso zaharren bat ahoan beti
gogotsu kantari. (BIS)

-8-

Esatea ez da kalte:
Beti izan zara aske
ta aske denak bizitzan erruz
gozatu dezake.
Beraz, adiskide maite
joan zarenez aparte
agur gozorik ez dagolako
soilik, gero arte! (BIS)

AUPA